

BERTSOKARIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ALDIZKARI DIGITALA

2021ko ekaineko alea

ARABAR ERRIOXA
BERTSOZALE

BERTSO IKASGELA

SARRERA ALBISTEAK GURI BURUZ IKASTETXEAK IKASLEEN TXOKOA



PISTOLERO JOLASA

Hitz bat emango zaigu eta ea azkar sakatzen dugun berekin errimatzen duen hitza. Adi, tiroak huts egin gabe!

Segi irakurtzen



Berriro jolastu nahi?

Hauetik dira aste honetan ikasgelatan egin ditugun jolasak!



Bertso sortak

Bertso jarriak, musikatura. Kanta dezagun!



Bat-bateko saioak

Gozatu plazako bertsoaldi onenekin!

ALBISTEAK



Xalbadorri txistuak

Ekainaren 11 zen, 1967ko Txapelketa. Historiako une esanguratsuenetako bat gertatzen zela zinoan... Zer gertatu zen jakin nahi?

2020-06-10

Arabako Errioxako zenbait ikastetxe eta erakunderen elkarlanari esker urtero bertsolaritzaren inguruko programa eskaintzen da Lehen hezkuntzako 3 ikastetxetan. Guztira 5 gelatan landu dute Bertsolaritza 2020-2021 ikasturtean. Oihane Perea 15ean behin ordu betez izan da gela bakoitzean, [San Bizente ikastola](#), [Lantziego ikastola](#) eta [Bastida ikastolan](#)

Zailtasunen eta neurri zorrotzen gainetik gozamen eta bat-batekotasuna izan dira aurtengo protagonista nagusiak, eta inork gutxi espero ez bazuen ere ikasturtea ederto amaitu dugu. 15ean behin landu dugu bertsolaritza 5. eta 6. mailan, [Bertso-ikasgela](#) bidelagun bikaina izan da eta askotariko ekintzak egin ditugu, bat-batekotasunean trebatzeko jolas ugari, okasio bere-zietarako bertso-sortak, Alea bideo koplak lehiaketa, eskolarteko bertso txapelketarako bertsoak, ipuinak bertsotan, 6. mailari agur eta oporrei kaixo esateko bertsoak... Ikasturtea musukoan atzeko irribarre salatariz amaitu dugu. Hurrengoan gehiago eta hobeto!

GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA

Egín KLIK bertsoak ikusteko !!!



LANTZIEGO

[Lantziego ikastola – Lantziego – 5. eta 6. maila: Hamsel eta Gretelen ipuina](#)

[Lantziego ikastola– Lantziego 5, eta 6. maila: Eskolarteko bertso Txapelketa sarituak](#)

OION

[San Bizente Ikastola – Oion – 5. maila: Gabonetako zorion mezua](#)

[San Bizente Ikastola – Oion – 5. maila: Ipuina bertsoan](#)

[San Bizente Ikastola – Oion – 6 maila: Oporretatik bideodeia](#)

[San Bizente Ikastola – Oion – 6. maila: Iragarkiak](#)

BASTIDA

[Bastida Ikastola– Bastida – 5. maila: irakasleak](#)

[Bastida Ikastola– Bastida – 5. maila: zazpi antxumeak](#)

[Bastida Ikastola– Bastida – 6. maila: Marrazki bizidunak asmakizunak](#)

[Bastida Ikastola– Bastida – 6. maila: oporretatik bideodeia](#)



ARABAKO 14 urtez azpiko eskolartekoa

ARABAR ERRIOXAN

Apirilean zehar ikastetxeetan eta bertso-eskoletan 2500 hurrek bertso idatziak prestatu ostean, maiatzean zehar eskualdez eskualde Topaketak izan dira, idatzizko sari banaketa eta bat-bateko erakustaldiekin. Arabar Errioxako Maiatzaren 29an izan zen Bastidako plazan.

Bastidako herriko plazan eguraldi bikaina izan genuen, behar bada horrek ere lagunduta, nerbioak baretu eta festa giroa izan zen hasieratik. Lantziego, San Bizente eta Bastida ikastoletako idatzizko lan sarituak eta sortu berri den Bastidako bertso-eskolako bat-bateko emanaldiak tartekatu ziren.

ARabar ERrioxan lehen aldiz parte hartu du bat-bateko modalitatean, Hezkuntza Arautuko metodologia berrikuntza eta bertso-eskoletan egon den loraldia lagun. hazkundea lagun. Bastidako bertso-eskolako ikasleen erakustaldi freskoa izan zen oso, ganoraz mikrofono aurrean kantatuz, eta primeran egin zuten Zigoitian izan zen finalean berriz ere ikusteko aukera izan genuelarik.

Idatzizko eta bat-bateko finalistak Ekainaren 5ean Zigoitian elkartu ziren, txapelketari bukaera borobila emanez. Saria jaso duten Arabako Errioxa eskualdeko hurrek Irailaren 12an Hontza Xtrem abentura parkean egun pasa izango dute, goizean idatzizkoek eta arratsaldean bat-batekoek, eta ohartzerako berriz ere zabalik egongo dira gure bertso-eskolak, bertso gosez dauden hurrei martxa emateko prest.



BBG tailerrak Eta lehiaketa DIONEN



Ikasturte honetan zehar ere “Bertsoa bizi gazte” egitasmoa eraman da aurrera Arabako ikastetxe gehienetan. Egitasmo honen helburua bertsolaritza, rapa eta musika lantzea da. DBH eta batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. San Bizente ikastolan tailerrak egin dituzte Xabi Lasarekin.

Ikasleek bideoklip originak bat egin zuten “BBG lehiaketarako! eta saria jaso zuten Maiatzaren 15ean izan zen sari banaketan.



Aguraingo Harresi Aretoan izan zen sari banaketa Ekainaren 15ean Bertsoa bizi gazte egunaren baitan eta bertan jokatu zen 14 urtetik 18 urtera bitarteko Arabako Eskolarte-ko Bertsolari Txapelketako finala ere.

Gasteizko Maddi Agirre, Hegoi Amabizka eta Eukene De los Aires, Aramaioko Danel Herrarte eta Gari Arexolaleiba eta Aguraingo Beñat Cano izan ziren hiru eskualdeetan egindako topaketetan aukeratutako 6 finalistak. Maddi Agirreri Aitor Ugartek jantzi zion txapela, buru onean dagoela gogoraraziz, eta iazko lekukoa jasotzen duen egurrezko mikrofonoa pasatzean sendo kantatu zuen “Oinordetzan pasatzea da zure misioa, inoiz ere ez da-dila eten transmisioa”. Harro eta arduraz kontziente hartu zuen Maddik lekukoa “gazteriaren lana da orain txinparta su bihurtzea, jarrai dezagun bertsolaritzan egiten gure bidea”. Luzaroen izango duen txapelketako oroi-garri borobila eraman zuen etxera.



BERTSO ESKOLAK



Arabar Errioxako bertso-eskolen berpizkundea ekarri du 2020-2021 ikasturteak. Bastidako bertso eskola sortu berria da horren lekuko.

Asteazkenetan LH 5. maila arteko ikasleak izan dira, Bastida eskola eta Bastida ikastolakoak. Ostiral arratsaldetan aldiz 6. mailako txanda izan da. Orlando Arreitunandia irakaslean mimo handiz zaindu eta taularatzen lagundu die. Hurrengo ikasturtean gehio eta ahal bada hobeto.

GOZATU OPORRAK !



[IZENA EMATEKO](#)

